LABEGUERIE' ren
**LAU KANTA**

| BIGARREN DIZKA |

## GAZTERI BERRIA

Aita, zer egin duzu gure lur maitea ?
Kanpokoari saldu, oi dohakabea !
Arrotzez betea da Euzkadi guzia,
Eskualduna etxean ez dago nausia.

*Gu gira Euzkadiko gazteri berria,*
(bis)
*Euzkadi bakarra da gure aberria...*

Aita, zer egin duzu eskuara maitea ?
Erderan hazi duzu oi zure semea.
Ontasun ederrena aita batek galtzea,
Biotzean sartua dugu ahalgea.

*Gu gira Euzkadiko...*

Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia,
Bainan eskual semea da gure anaia.
Hemen dela España, han dela Frantzia,
Mugaren bi aldetan da Eskual-Herria

*Gu gira Euzkadiko...*

Jaungoikoak emana hor dugu herria,
Bere semek hiltzera zer gatik utzia...
Bat egin behar dugu Euzkadi guzia,
Bildu gaiten, anaiak, gure da bizia !

*Gu gira Euzkadiko...*

## EZKILAREN KANTUA

Gure eliz'dorreko ezkila zaharrak
Badauzka hedaturik berrien bakarrak.

*Dilin, dalan, dalan*
*Din-dan bolêran !*
(bis)

Ene aitatxi zuten noizbait bataiatu,
Ezkil zaharra baitzen alegrantziatu.

*Dilin, dalan, dalan...*

Sortuz geroz gizonak zor du maitatzea,
Bai kartsuki jo zuen haren ezkontzea.

*Dilin, dalan, dalan...*

Bainan ezkil zaharra zertako brandaka
Etsai gaixtoa dator, lot, gizon, armaka.

*Dilin, dalan, dalan...*

Arrats hotz latzgarria, ezkil hetsitua,
Aitatxi gorputz da-ta gerla da galdua.

*Dilin, dalan, dalan...*

Bainan ezkila mintzo, xo, dezagun adi,
Haur ttipi bat sortu da, azkar bizi bedi !

*Dilin, dalan, dalan...*

Kanta beza ezkilak menderen mendetan,
Kanta beza bizia Eskual herrietan !

*Dilin, dalan, dalan...*

## ASTOA BALAAN

*Gure astoa Balaan*
*Izan zerauku elizan.*

Asto koxkor bat zela debozionetan
Sartu zen elizako koro barne hetan
Eta ihanka lotu bere otoitzetan
Aldareko buketak ausikiz artetan.

*Gure astoa...*

Utzirik lo kuluxka ta kofesionala
Jaun ertorak hartu du kurutze makila
Eta hartaz zanpatuz debrutarat zoala
Elizatik aizatu oi gure kabala.

*Gure astoa...*

Zergatik ez den aizu elizan astorik
Pentsaketan ari da Balaan geroztik
Orhoit baita asto bat beretter izanik
Lehen eguberria gertatu zelarik.

*Gure astoa Balaan*
*Izan zerauku elizan.*

## GATUA PITXITXI

Ez du uzten supazterra
Badu lephoko superra
Da gizen bezain edetra
Iduri du kalonjerra

*Gure gatua Pitxitxi*
*Da dena ilhe ta txitxi.*

Eguna derama lotan
Ase ondo ametsetan
Iduri du bai egitan
Kalonjer bat bezperetan

*Gure gatua...*

Jaun kalonjerra, barkatu,
Zuri baitut konparatu
Pitxitxik iliak baditu
Ez zaio kaskoa pelatu

*Gure gatua...*

Lana baitzaio itsusi
Ez du ihizin ikasi
Saguño bati ihesi
Nihaurk atzo dut ikusi.

*Gure gatua...*

Pitxitxi hiltzen delarik
Ez baitu egin gaizkirik
Zazpi izpirituetarik
Bat baduke salbaturik

*Gure gatua...*

Nola bizi den lur huntan
Hala gatuen zerutan
Biziko da ametsetan
Sekulorum sekulotan.

*Gure gatua...*

**GOIZTIRI - 14, Kordelieren karrika, BAIONA**

G13-0412

ERESBIL
1007100
G13-0412

A. LAFON & FILS. BX